



---

**EBAZPENA, 2012KO URTARRILAREN 27KOA, BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA-ADMINISTRATIOAN PLAZA HUTSAK ETA LIZENTZIENGATIK EDO BAIMENENGATIK ABSENTE DAUDENEN PLAZAK BETETZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA.**

---

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 472.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, larrialdia edo premia dela-eta, bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango dira. Kidego horiei dagozkien eginkizunak beteko dituzte, ezinezkoa bada eginkizun horiek karrerako funtzionarioek egitea, edo ez badira desagertu haiek izendatzeko arrazoiak.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikulua dioenez, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen edo ordezpenen bitartez bete daitezke aldi baterako; lege horretako 514. artikulua, bere aldetik, esaten du badagoela zerbitzu aktibora itzultzea plaza huts batera behin-behinean atxikiz.

Arau horren babesean, abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretua eman zuen Justizia Ministerioak, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen sarbidea, lanpostuen betetzea eta lanbide-sustapena arautzeko Erregelamendua onartzen zuena.

Ebazpen honen bitartez, irizpide zehatzak jarri nahi dira Euskal Autonomia Erkidegoko bulego judizialetan, fiskaltzetan eta justizia-administrazioako zerbitzuetan sortzen diren langile-beharrak betetzeko, lanpostu horietan, behin-behinean edo aldi baterako, karrerako funtzionarioak edo bitarteko langileak jarritz.

Zerbitzuaren beharren eta aurrekontua izatearen mende egongo da beti lanpostuak betetzeko prozedura hori.

Azpimarratzekoa da, alde batetik, lanpostu hutsak –titular edo bitarteko funtzionario batek bete gabekoak– betetzeari buruz ari garela, eta, bestetik, lizentziak edo baimenak direla-eta absente dauden pertsonen lanpostuak betetzeaz.

Nabarmentzekoa da, baita ere, premiagatik izendatu bada funtzionario bat, eta ez badu premia behar bezala asetzen, kargua utzi beharko duela derrigorrean, izendapen hori eragin zuen arrazoia desagertu delako.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren, eta Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaritzak Justizia Administrazioaren zerbitzura



diharduten langileen arloan dituen zereginak ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 12. artikuluari jarraituz, honako hau

## **EBATZIDUT:**

### ***I. TITULUA. LANPOSTUAK BETETZEKO SISTEMA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK.***

#### **I. KAPITULUA: HARTZAILERIK EZ DUTEN PLAZA HUTSAK BETETZEA.**

##### **1. artikulua.- Deialditik kanpo dauden egoerak.**

Ebazpen honen esparrutik kanpo gelditzen dira Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen sarbidea, lanpostuen betetzea eta lanbide-sustapena arautzeko Erregelamenduaren 68. artikuluan jasotako egoeretan dauden pertsonak, eta xede-lanpostua eskuratzeko lehentasuna izango dute.

Plazak betetzeko sistema hauetan parte hartu ahal izango dute, Ebazpen honetan xedatutako eskakizunei jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren beste kidego batzuetan soberan dauden funtzionario titularrek.

##### **2. artikulua.- Bitarteko funtzionarioak izendatzea (Aginduaren 7.6 artikulua) premia larriengatik.**

Bitarteko funtzionario bat izendatu ahal izango da, hartzailerik gabeko lanpostu hutsak betetzeko gainerako sistemekiko lehentasunez, 2010eko irailaren 16ko Aginduaren, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuarena denaren, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostuak estaltzeko bitarteko funtzionarioak aukeratzeari, proposatzeari eta izendatzeari buruzkoaren, 7. artikulua seigarren atalean xedatutakoari jarraiki.

##### **3. artikulua.- Bitarteko funtzionarioak izendatzea.**

Bulego Judizial eta Fiskaleko Zuzendaritzak uste badu hartzailerik gabeko plaza hutsak betetzeko premia larria dagoela, edo plaza horiek jarraian azaltzen diren organoetan badaude, bitarteko funtzionarioak izendatuko dira lehen aipatutako 2010eko irailaren 16ko Aginduari jarraiki:

- Alderdi txikien Zerbitzu Orokorrak eta Donostiako eta Bilboko zigor-arloko epaitegiak.
- Alderdi txikien erregistro zibilak.
- Bete gabeko 2 plaza baino gehiago dituzten bulego judizialak.



#### **4. artikulua.- Zerbitzu-eginkizunak, behin-behineko atxikipenak eta bitarteko funtzionarioak izendatzea.**

Hartzailerik gabeko plaza huts horiek betetzeko beharra premiazkoa ez bada, hiru sistema erabiliko dira plaza horiek betetzeko, honako lehentasun-ordena honetan:

- 1.- Zerbitzu-eginkizunetan betetzea.
- 2.- Behin-behineko atxikipena.
- 3.- Bitarteko funtzionarioak izendatzea.

## **II. KAPITULUA: LIZENTZIENGATIK EDO BAIMENENGATIK TITULARRA ABSENTE DAGOENEAN LANPOSTUA BETETZEA**

#### **5. artikulua.- Ordezpenak: funtzionario titularrak betetzea denbora batez.**

Hiru hilabeteko edo gehiagoko lizentziak edo baimenak direla-eta, lanpostu baten titularra absente badago, horren plaza estaliko du hierarkian beherantz hurrengo mailan dagoen kidegoko funtzionario titular batek Ebazpen honen II. tituluaren IV. kapituluan jasotako prozedurari jarraiki. Zerbitzuaren beharren eta aurrekontua izatearen mende egongo da beti lanpostuak betetzeko prozedura hori.

#### **6. artikulua.- Bitarteko funtzionarioak izendatzea irailaren 16ko Aginduaren 7.6 artikuluan xedatutako moduan.**

Hiru hilabeteko edo gehiagoko lizentziengatik edo baimenengatik absente dauden titularren plazak funtzionario titularrek betetzen ez badituzte, bitarteko funtzionarioak izendatzeko sistemaren bidez bete ahal izango dira, 2010eko irailaren 16ko Aginduaren, Justizia eta Herri Administrazioaren Sailburuarena denaren, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostuak estaltzeko bitarteko funtzionarioak aukeratzeari, proposatzeari eta izendatzeari buruzkoaren, 7. artikuluan seigarren atalean xedatzen den prozedurari jarraiki. Zerbitzuaren beharren eta aurrekontua izatearen mende egongo da beti lanpostuak betetzeko prozedura hori.

#### **7. artikulua.- Bitarteko funtzionarioak izendatzea.**

Azken aukera gisa, hiru hilabeteko edo gehiagoko lizentziengatik edo baimenengatik absente daudenen plazak estaltzeko, bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango dira aipatutako irailaren 16ko Aginduari jarraiki. Zerbitzuaren beharren eta aurrekontua izatearen mende egongo da beti lanpostuak betetzeko prozedura hori.

## **II. TITULUA. PROZEDURAK.**



## I. KAPITULUA: BITARTEKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA, 2010EKO IRAILAREN 16KO AGINDUAREN 7.6 ARTIKULUAN XEDATUTAKO MODUAN.

**8. artikulua.-** Bitarteko funtzionarioak izendatzeko modu honetan, derrigorrean bete beharko dira 2010eko irailaren 16ko Aginduaren, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuarena denaren, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostuak betetzeko bitarteko funtzionarioak aukeratzeari, proposatzeari eta izendatzeari buruzkoaren, 7. artikulua seigarren atalean xedatutako eskakizunak.

Salbuespen gisa, aipatutako artikulua horrek xedatzen du pertsona izendatu ahal izango dela, hura poltsako edozein postutan egonda ere. Honako hau dio artikulua:

*“7. artikulua.- Lanpostu jakin baterako hautatzea eta izendatzea.*

*Baldin eta bulego eta zerbitzu judizial batean bitarteko funtzionario baten lanpostu-uztetik kidego bereko beste bati deitu arte sei hilabete baino gutxiago igaro bada bertan zerbitzuak betetze aldera, lehenengoa izendatu ahal da, behin bakarrik eta baiezkora eman ondoren, baldin eta bulegoko edo zerbitzuko arduradunak eskatzen badu.*

*Baldin eta hautagaiak deiari uko egiten badiu horrek ez du ondoriorik izango lan-poltsan duen egoerari dagokionez.”*

## II. KAPITULUA: BITARTEKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA

**9. artikulua.-** Bitarteko funtzionarioak izendatzerakoan, derrigorrean bete beharko da 2010eko irailaren 16ko Agindua, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuarena, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lanpostuak betetzeko bitarteko funtzionarioak aukeratzeari, proposatzeari eta izendatzeari buruzkoa. Zerbitzuaren beharren eta aurrekontua izatearen mende egongo da beti lanpostuak betetzeko prozedura hori.

## III. KAPITULUA: ZERBITZU-EGINKIZUNA ETA BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENA

### 10. artikulua.- Esparru objektiboa.

Plaza hutsak eskaini ahal izango dira, haien titularrak edo bitarteko funtzionarioek bete gabeko postu guztiak plaza huts direla ulertuta, zerbitzu-eginkizunetan bete ditzaten, edo Justizia Administrazioiko beste kidego batean lan



egiteagatik borondatezko eszedentziaren ondoren behin-behineko atxikipenaren bidez zerbitzu aktibora itzuli direnek bete ditzaten.

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako funtzionarioak ordezeko idazkari izendatutakoan horiek hutsik utzitako lanpostuak ere eskaini ahal izango dira, betiere, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen sarbidea, lanpostuen betetzea eta lanbide-sustapena arautzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 70. artikuluan horiek itzultzeari buruz xedatzen dena errespetatuz.

## **11. artikulua.- Eremu subjektiboa.**

1.- Postuak behin behinean betetzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute, zerbitzu-eginkizunetan, behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioek, baldin eta deialdiaren aurreko 3 hilabeteetan, gutxienez, haien kidegoko edo eskalako lanpostu batean zerbitzu eraginkorrek ematen ari badira, eta lanpostuen zerrendan deitutako lanpostuarentzat ezarritako eskakizun guztiak betetzen badituzte.

Ez dute eskakizun hori bete beharrik izango honako hauek:

1.1.- 12. artikulua 1., 2., 3. eta 4. ataletan jasotako egoeretan daudenek.

1.2.- Hiru hilabete horietan zehar honako baimenetako bat izan duten funtzionarioek:

- a.- Semea edo alaba jaiotzeagatiko baimena.
- b.- Seme edo alaba bat abegian edo adopzioan hartzeagatiko baimena.
- c.- Edoskitzaroko baimena.
- d.- Aitatasunagatiko baimena.

2.- Justizia Administrazioko beste kidego batean zerbitzu emateko borondatezko eszedentziatik zerbitzu aktibora itzuli ahal izango dira, plaza huts batera behin-behinean atxikiz, kidego edo eskala horretako karrerako funtzionarioak, deitutako lanpostuaren eskakizunak betetzen badituzte.

3.- Beharrezkoa da prozedura horren bitartez lanpostua lortzen duen funtzionarioa zerbitzu ematen egotea, eta ez egotea lizentziez edo baimenez gozaten esleitutako lanpostuan sartzeko unean (senide baten gaixotasun larria edo heriotzagatiko baimenak salbuetsita, gehienez ere 7 egunekoak direnak). Edonola ere, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariak lanpostua esleitzeko erabakian zehaztutako datan hartu beharko du postua.

## **12. artikulua.- Esleipena ordenatzeko irizpideak.**



1.- Eskaintako lanpostuetako bat esleitzeko orduan, funtzionario batek baino gehiagok lortu nahi badu hori, honako ordena hau jarraituko da:

- 1.- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima den emakume funtzionarioa, bere zerbitzuak ematen zituen udalerriko lanpostua utzi behar izan duena babes eraginkorra izateko edo gizarte-laguntza integrala eskuratzeko, eta terrorismoaren edo mehatxu-terroristen biktima den funtzionarioa. Egoera horiek egiaztatu egin beharko dira.
- 2.- Lan-jazarpeneko espediente baten mende dauden funtzionarioak baldin eta ebazpen-proposamenean lanpostu-aldaketa proposatu bada edo espediente-hasierako Prebentzio Zerbitzuaren ebaluazioan lanpostuz aldatzeko beharra adierazi bada.
- 3.- Funtzionarioaren gaixotasun larriagatik medikuaren txostenak eta Prebentzio Zerbitzuaren balioespenak lanpostuz aldatzea beharrezkoa dela adierazten badute.
- 4.- Mendekotasunaren Legea aplikatuzetik ondorioztatutako egoerak, betiere funtzionarioa zaintzaile nagusia bada eta dagozkien gizarte-zerbitzuek txosten baten bidez egiaztatzen badute.
- 5.- Interes partikularragatik lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta destinoa beste probintzia batean eskatzen duen funtzionarioak.
- 6.- Interes partikularragatik destinoa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo daukaten funtzionarioak, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi badira edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bada haien senitarteko bat, odolkidetasunezko lehenengo edo bigarren mailakoa.
- 7.- Interes partikularragatik eskaintako plazei dagokien udalerrria ez den beste batean bizi diren funtzionarioak.
- 8.- *Behin-behineko atxikipenaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen diren langileak (Justizia Administrazioako beste kidego batean lan egin ondoren), LEPen sartzen ez diren plaza hutsak betetzeko soilik.*

2.- Lehentasun-ordena horri jarraiki ebatziko dira lehenbizi zerbitzu-eginkizunen eskabideak, eta, berdinketarik egonez gero, dagokion kidegoaren mailaketa hartuko da kontuan (Justizia Ministerioaren azken mailaketa eguneratua erabilita).

Eginkizunetako nagusiaren (fiskal nagusia, idazkari judiziala edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendaria) txosten arrazoituarekin batera igorri beharko da eskakizuna. Destinoa beste autonomia-erkidego batean eta Justizia



Ministerioaren lan-eremuan duten funtzionarioek jatorriko administrazioaren aldeko txostena ere aurkeztu beharko dute eskakizunarekin batera.

3.- Hizkuntzari dagokionez, bi egoera bereiziko ditugu.

BJB ezarri ondorengo plazei dagokienez, LZn ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

Gainerako plazei dagokienez, Bulego Judizial Berria ezarri arte, euskararen erabilera sustatzeko esperientzia piloturik balego, hizkuntza-irizpideak aplikatuko dira, Hizkuntza Politikako Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko mapa linguistikoa zehazterakoan emandako jarraibideen esparruan.

Hala badagokio, euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuen zerrenda helaraziko zaie sindikatu-zentroei.

### **13. artikulua.- Prozedura hastea.**

1.- Bulego Judizial eta Fiskaleko Zuzendaritzak ostegunetan deituko ditu beti hartzailerik gabeko plaza hutsak, halakorik badago, eta zerbitzu-eginkizunetan edo zerbitzu aktibora itzultzeagatiko behin-behineko atxikipenetan eskatu ahal izango dira.

2.- Deialdien berri eman beharko zaie langileen ordezkarietara.

3.- Prozedura honetatik kanpo gelditzen dira Kudeatzaile Arduradunen postuak, bai eta LZk ezartzen diren artean euskaragatik bereizitako lanpostuak ere.

4.- Ezin izango da deialdirik egin aurrekoa ebatzen ez den artean.

### **14. artikulua. Deialdia argitaratzea, eta eskaerak aurkezteko lekua eta epea.**

1.- Justiziako intranet sarean eta [www.justizia.net](http://www.justizia.net) web-orrian argitaratuko dira deialdiak.

2.- Ebazpen honen eranskinean jasotako ereduaren arabeko eskabidea aurkeztu beharko dute interesdunek. Eskabidean, lehentasunaren arabera zerrendatuko dira eskatzen diren lanpostuak.

3.- Ezinbesteko eskakizuna da eskabideak faxez igortzea Bulego Judizial eta Fiskaleko Zuzendaritzara, 945-019152 zenbakira soilik, edo posta elektronikoz [r-humanos@ej-gv.es](mailto:r-humanos@ej-gv.es) helbidera. Beste fax-zenbaki batera edo beste helbide elektroniko batera igorritako eskakizunak baztertu egingo dira.

Izapideak egiteko eta ebazpena emateko denbora-tartea laburra denez, beharrezkoa da eskabideak esandako moduan bideratzea.



4.- Eskabideak aurkezteko epea 5 egun naturalekoa izango da, deialdia Justiziako intranetean eta [www.justizia.net](http://www.justizia.net) web-orrian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

5.- Eskabidearekin batera, egiaztatzeko dokumentuak ere igorri beharko dira 12.1 artikuluko 1.tik 4.era bitarteko ataletan jasotako egoeretakoren batean egonez gero, bai eta funtzionarioaren jatorriko organoan eginkizunetako nagusi denaren (fiskal burua, idazkari judiziala edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendaria) txosten arrazoitua ere; bestalde, beste autonomia-erkidego batzuetan eta Justizia Ministerioaren lan-eremuan diharduten funtzionarioei dagokienez, eskumena duen administrazioaren baimena ere behar izango da.

## **15. artikulua.- Hautaketa.**

1.- Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak aukera izango du dena delako hautagaia ez aukeratzeko, nahiz eta ebazpenean zehaztutako irizpideen arabera hari egokitu lanpostua, baldin eta prozedura ebatzen den unean ezin badu benetan leku berrian lanean hasi. Hori gertatuz gero, hurrengo hautagaia aukeratuko dute.

2.- Era berean, eta dagokion langilea ez bada lanean hasten esleipen-ebazpenak xedatutako egunean, hautagaiak haren eskubidea galduko du eta bitarteko funtzionario bat izendatuko da. Hautagaia ez bada lanean hasi postuari uko egin diolako, ezingo du beste deialdi batean parte hartu hiru urtetan zehar, uko egin zuen egunetik zenbatzen hasita. Zigor hori aplikatuko zaie, baita ere, lanean hasi ondoren zerbitzu-eginkizunei uko egiten dieten funtzionarioei. Bi egoera horietan, bitarteko funtzionario batek beteko du hutsik geratutako lanpostu hori.

3.- Zerbitzu-eginkizunetatik berehala kenduko dira zerbitzu-eginkizunetan dauden eta lekualdatzeko lehiaketa batean parte hartzeko aukera izanda parte hartu ez duten funtzionarioak.

Funtzionario horiek ezingo dute Euskal Autonomia Erkidegoan beste zerbitzu-eginkizunik eskatu postua utzi zutenetik hiru urte igaro arte.

4.- Zerbitzu-eginkizunak, hasiera batean behintzat, 6 hilabeterako izango dira. Halere, luzatu ahal izango dira; horretarako, interesdunaren eskabidea aurkeztu beharko da, bai eta dagokion organoko eginkizunetako nagusiaren aldeko txostena ere, datu objektiboetan oinarritutakoa. Edonola ere, zerbitzu-eginkizunetan dagoen funtzionarioak lanpostua utzi beharko du lanpostua behin betiko betetzen denean.

5.- Datuak Babesteko Legea dela-eta, 3. artikulua 1. paragrafoan aipatzen diren 4 egoeretakoren batengatik lanpostua esleitzen zaien funtzionarioei buruzko daturik ez da emango, eta beraz, esleipendunei zuzenean jakinaraziko zaie zerbitzu-eginkizunetan zein lanpostu lortu duten eta noiz hasi beharko duten horretan;





justiziako intranetean eta [www.justizia.net](http://www.justizia.net) web-orrian argitaratuko da destinorik lortu ez duten pertsonen zerrenda.

#### **16. artikulua.- Deialdia hutsik geratzea.**

Deialdia hutsik geratzen bada, Bulego Judizial eta Fiskaleko Zuzendaritzak bitarteko funtzionario bat izendatu ahal izango du postua betetzeko.

### **IV. KAPITULUA: ORDEZPENAK. FUNTZIONARIO TITULARREK BETETZEA DENBORA BATEZ.**

#### **17. artikulua.- Eremu objektiboa.**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako eta Prozesu eta Administrazio Izapidetzako kidegoetako lanpostu bat hutsik badago haren titularra absente dagoelako hiru hilabeteko edo gehiagoko lizentziak edo baimenak direla-eta, ordezen bidez bete ahal izango da postu hori.

#### **18. artikulua.- Eremu subjektiboa.**

Postu hori ordezen bidez bete ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko bulego judizial, fiskaltza edo justizia-administrazioko zerbitzu berean behin betiko destinoa duen karrerako funtzionario batek. Horretarako, lanpostuen zerrendetan xedatzen diren eskakizun guztiak bete beharko ditu, eta bete beharreko postuari dagokion kidegoan sartzeko behar den titulazioa eduki, funtzionarioen sarbidea, lanpostuen betetzea eta lanbide-sustapena arautzeko Erregelamenduaren 74. artikuluari jarraiki.

#### **19. artikulua.- Prozedura.**

1.- Bulego judizialeko idazkariak, fiskal buruak edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendariak egin beharko du eskaera, edo interesdunak berak, baldin eta bulego judizialeko idazkariaren, fiskal buruaren edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendariaren txosten arrazoitua badu, eta horiek guztiak kontuan izango dute premia zenbaterainokoa den edo zerbitzuaren beharrizanak zein diren.

2.- Eskakizunak betetzen dituen funtzionario batek baino gehiagok eskatuko balu ordezena, dagokion kidegoaren mailaketan antzinatasun handiena duen eskatzaileak izango du lehentasuna (Justizia Ministerioaren azken mailaketa eguneratua erabilita).

3.- Ordezko izendatutakoak bere jatorrizko postua gordeko du, eta postua utziko du haren titularra itzultzen denean edo ordezena eragin zuen arazoia amaitzen denean edo haren izendapena eragin zuen premiazko beharrari erantzun ezin dionean.



Ordezpen hori egiten duen bitartean, ordezenagatik betetzen duen lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak jasotzeko eskubidea izango du.

4.- Ordezko funtzionarioak aldi baterako hutsik uzten duen lanpostua ezingo du beste ordezeko batek bete.

## **20. artikulua.- Ordezpenak bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteetan.**

Bake-epaitegien idazkaritzen elkarteetan erabakitako ordezkapenak Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen sarbidea, lanpostuen betetzea eta lanbide-sustapena arautzeko Erregelamenduaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera izango dira.

1.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Honen kontra, gorako errekurso bat aurkeztu ahal izango da Justiziako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean Justiziako intransituetan eta [www.justizia.net](http://www.justizia.net) web-orrian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gorako errekursoa jarri denetik hiru hilabete pasatzen badira eta erantzunik jaso ez bada, errekursoa ezetsi egin dela ulertuko da; hala, administrazioarekiko auzibidea geratuko da libre.

Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 27an.

**Izpta.: ROSA GOMEZ ALVAREZ  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS**



Adierazi beharrekoa gurutze batez (X) markatu:

ZERBITZU EGIKIZUNA       ALDI BATERAKO ESLEIPENA       ORDEZKAPENA

(BULEGO JUDIZIALAREN ETA FISKALAREN ZUZENDARITZAK SOILIK BETE BEHARREKOA)

MAILA ZENBAKIA:					
BA AL DARAMA DEIALDIAN EZARRITAKO GUTXIENeko DENBORA ORAINGO DESTINOAN? BAI      EZ					
ERANTSITA AL DAGO ZERBITZU EGINKIZUNAK ERAGINDAKO LANPOSTU(AR)EN FUNTZIOETAN GORAGO DAGOEN HURRENGOAREN TXOSTENA EDOTA ADMINISTRATIO ESKUDUNAREN ONARPENA? BAI      EZ					
ORDEZKAPENA BADA, ERANTSITA AL DAGO KIDEGOAN SARTZEKO BEHAR DEN TITULAZIOA? BAI      EZ					
ADIERAZI 3.1 ARTIKULUKO ZEIN LEHENTASUN IRIZPIDEREN ARABERA BALORATUKO DEN ESKAERA					
1	2	3	4	5	6

(INTERESDUNAK BETE BEHARREKOA)

IFZ:	LEHEN ABIZENA:	BIGARREN ABIZENA:	IZENA:
ORAINGO JABETZAKO DESTINOAREN ORGANO JUDIZIALA:			ORAINGO KIDEGOA:
ESKATZEN DUEN KIDEGOA:		LANTOKIAREN EDO BIZILEKUAREN HELBIDEA:	
TEL. (SAKELAKOA/FINKOA):			
ORDEZKAPENETARAKO, BA AL DUZU KIDEGORAKO BEHAR DEN TITULAZIOA? BAI      EZ			
Baiezkoan, adierazi zein titulazio den eta erantsi:			
ADMINISTRATIO-EGOERA: Adierazi beharrekoa gurutze batez (X) markatu:			
	Adierazi zein organo judizialetan diharduzun zerbitzu egikizunetan: Jardunean Zerbitzu egikizunetan		
	Familiakoak zaintzeko eszedentzia	Hasiera eguna adierazi: Urtea ____/ Hila ___/ Eguna ___/	
	Zerbitzu bereziak		
	Borondatezko eszedentzia, arlo publikoan zerbitzuak betetzeagatik - 19/2003 BJLO, 506 d) art.		
	Borondatezko eszedentzia, norberaren interesagatik - 19/2003 BJLO, 506 e) art.    Hasiera eguna adierazi: Urtea ____/ Hila ___/ Eguna ___/		
	Borondatezko eszedentzia, familia bateratzeagatik - 19/2003 BJLO, 506 f) art.    Hasiera eguna adierazi: Urtea ____/ Hila ___/ Eguna ___/		
	Eginkizunik gabe utzita - 19/2003 BJLO, 506 g) art.		
	Jardunera itzulita, behin-behineko destinoan - 1451/2005 ED, 69 art.		
	Giza baliabideak berrantolatzeagatik atxikita - 249/96 ED, 52. c) art.		



Lehentasun hurrenkera	Organo judiziala	Herria	Lurraldea
-----------------------	------------------	--------	-----------

**1:** Ebazpenaren 12.1 artikuluko 1. ataletik 4. atalera bitarteko kasuren batean bazaude, adierazi zer agiri aurkezten dituzun eskaerarekin batera.



1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			
19			
20			
21			
22			
23			
24			
25			

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_-ko \_\_\_\_\_-ren \_\_\_\_\_ (e)a.  
*Tokia*                      *urtea*                      *hila*                      *eguna*  
Sinadura:

**BULEGO JUDIZIALA ETA FISKALAREN ZUZENDARITZA**

Fax.: 945-019152

Email.: [r-humanos@ej-gv.es](mailto:r-humanos@ej-gv.es)



Señalar (X) en el recuadro que proceda:

COMISION DE SERVICIOS     ADSCRIPCION PROVISIONAL     SUSTITUCION

(A RELLENAR POR LA DIRECCIÓN DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL.)

NÚMERO DE ESCALAFON:					
¿LLEVA EN SU ACTUAL DESTINO EL PERÍODO ESTABLECIDO EN LA CONVOCATORIA? SÍ                  NO					
¿ADJUNTA INFORME DEL SUPERIOR FUNCIONAL DE LA/S PLAZA/S AFECTADA/S POR LA COMISIÓN DE SERVICIO O APROBACIÓN DE LA COMUNIDAD COMPETENTE? SÍ                  NO					
¿EN EL CASO DE SUSTITUCION ADJUNTA LA TITULACION NECESARIA PARA EL ACCESO AL CUERPO? SÍ                  NO					
INDICAR EL CRITERIO DE PREFERENCIA DEL ARTICULO 3.1 POR EL QUE SE VALORARA LA SOLICITUD					
1	2	3	4	5	6

(A RELLENAR POR EL INTERESADO)

N.I.F.:	PRIMER APELLIDO:	SEGUNDO APELLIDO:	NOMBRE:
DENOMINACIÓN ÓRGANO JUDICIAL DE DESTINO ACTUAL EN PROPIEDAD:			CUERPO ACTUAL:
CUERPO PARA EL QUE PARTICIPA:		DIRECCIÓN PUESTO DE TRABAJO O DOMICILIO:  MÓVIL/FIJO:	
EN EL CASO DE SUSTITUCIONES ¿POSEE LA TITULACION NECESARIA PARA EL CUERPO DE ACCESO? SÍ                  NO			
En caso afirmativo indicar cual y adjuntarla:			
SITUACIÓN ADMINISTRATIVA: señalar (X) en el recuadro que proceda:			
	Indicar órgano judicial donde desempeña la comisión de servicios: Servicio activo Comisión de servicios		
	Excedencia por cuidado de familiares	Indicar la fecha de pase a la situación: Día ____/ Mes ____/ Año ____/	
	Servicios especiales		
	Excedencia voluntaria por prestación de servicios en el sector público Art. 506 d) LOPJ 19/2003.		
	Exc. Vol. por interés particular Art. 506 e) LOPJ 19/2003	Indicar la fecha de pase a la situación: Día ____/ Mes ____/ Año ____/	
	Exc. Vol. por agrupación familiar Art. 506 f) LOPJ 19/2003	Indicar la fecha de pase a la situación: Día ____/ Mes ____/ Año ____/	
	Suspensión de funciones Art. 506 g) LOPJ 19/2003		
	Reingreso Provisional Art. 69 R.D.1451/2005		
	Reordenación de efectivos Art. 52. c) R.D. 249/96		



Nº Orden de preferencia	Órgano Judicial	Localidad	Provincia
-------------------------	-----------------	-----------	-----------

**1:** Si se encuentra en alguno de los supuestos de los apartados 1 a 4 del Artículo 12.1 de la Resolución, indique la documentación que acompaña a la solicitud.



1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			
19			
20			
21			
22			
23			
24			
25			

\_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_  
*Lugar*                      *día*                      *mes*                      *año*

Firma:

**DIRECCIÓN DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL**

Fax.: 945-019152

Email.: [r-humanos@ej-gv.es](mailto:r-humanos@ej-gv.es)